

URTEKO DIRU-SARRERA HAZTATUAK

(Babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren arabera)

Diru-sarreraren jatorria

Diru-sarreraren baldintza betetzat jotzeko, diru-sarreraren % 90 gutxienez lan-etekinetatik eta/edo jarduera ekonomiko, profesional eta artistikoetatik eta/edo beketatik etortzea eskatuko da.

Baldintza hori ez zaie eskatuko etxebizitza babestu bat errentamendu-erregimenean eskuratzen duten pentsiodunei.

Administrazio publikoen gizarteratze-politiketarik datozen errenten kasuan, errentamenduaren kasuan baino ez dira zenbatuko.

Diru-sarrera konputagarriak

- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortena Euskal Autonomia Erkidegoan aurkeztu behar duten pertsonentzat eta, egin behar izan gabe ere, egin dutenentzat, honela zenbatuko dira:
 - Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpenaren edo aitortpenen zerga-oinarri orokorrak eta aurrezki-oinarriak, gehi
 - Lan-etekinei aplikatutako hobariak, eta
 - Hala badagokio, egon litezkeen salbuetsitako errentak, hurrengo idatz-zatian ezarritakoaren arabera zenbatuta.
- Euskal Autonomia Erkidegoan errentaren gaineko zergaren aitortena aurkeztu beharrik ez duten pertsonen kasuan, honako diru-sarrera hauek zenbatuko dira:
 - Lan-etekinen eta langabezia-prestazioen kasuan, kontzeptu guztiengatik egiaztatutako diru-sarrera gordinen % 95.
 - Pentsioen eta langabezia-subsidioen eta zergarik gabeko dieten kasuan, kontzeptu guztiengatik egiaztatutako diru-sarrera gordinen % 100.
- Bananduei, dibortziatuei eta alargunei dagozkien diru-sarrerak zehazteko, bai eta izatezko bikoteko kideei dagozkienak ere, horietako bat hiltzen bada edo bikotea desegiten bada, egiaztatu beharreko diru-sarrerak ezkontza edo bikote-egoera gertatzen zen aldiari badagokio, honako irizpide hauei jarraituko zaie:
 - Araubide ekonomikoa ondasunak banatzekoa bada, eskatzailearengandik datozen diru-sarrerak bakarrik zenbatuko zaizkio.
 - Gainerakoetan, ezkontzaren edo izatezko bikotearen diru-sarreraren % 50 zenbatuko da.
- Era berean, konpentsazio-pentsioak hura ordaindu behar duen ezkontide ohiaren diru-sarreraren murrizketa gisa jasotzen duen ezkontide ohiaren diru-sarrera gisa hartuko dira kontuan, betiere konpentsazio-pentsioa ordaintzera behartuta dagoen ezkontide ohiak dokumentu bidez frogatzen badu benetan ordaindu duela.

Diru-sarrereren haztapena

Diru-sarrereren haztapena, goian adierazitakoaren arabera, formula honen arabera egingo da:

$$IP = IC \times N \times A$$

Hau da:

IP	IC	N	A
Diru-sarrera haztatuen zenbatekoa	Diru-sarrera konputagarriak	Haztapen-koefizientea, bizikidetz-unitateko kide-kopuruaren arabera.	Haztapen-koefizientea, diru-sarrereren % 20 gutxienez irabazten duten bizikidetz-unitateko kideen kopuruaren arabera.
		Kide bat: 1,00 2 kide: 0,95 3 kide: 0,90 4 kide: 0,85 5 kide: 0,75 6 kide: 0,65 7 kide: 0,55 7 kide gora: 0,50	Hartzaile bakarra: 1,00 2 hartzaile: 0,90 3 hartzaile edo gehiago: 0,85

Gutxieneko diru-sarreretak:

Diru-sarrereren haztapenak ez du ekarriko, inola ere, haztapen horren ondorioz 39/2008 Dekretuaren 19. artikuluan aurreikusitako gutxieneko diru-sarreretara iristen ez diren eskatzaileak baztertzea.